



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea  
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

## **LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2014/2015 ikasturtea**

### **EMAKUMEA ETA LITERATURA**

**Emakumea subjektu eta objektu paperean**

**Egilea: Oihane Elorriaga Elordui**

**Zuzendaria: Francisco Javier Rojo Cobos**

**Leioan, 2015eko ekainaren 4an**

## AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Marko teorikoa.....	4
1.1. Emakumea eta literatura.....	4
1.2. Emakumearen literaturaren bilakaera.....	6
1.3. Emakumearen literatura gaur egun.....	8
2. Metodologia.....	11
3. Lanaren garapena: Ipuinen analisisa.....	12
3.1. Amets uhinak.....	12
3.2. Elisabete lehoi domatzailea.....	14
3.3. Txan fantasma.....	15
3.4. Amona, zure Iholdi.....	17
3.4. Maitagarria eta desioa.....	18
4. Ondorioak.....	19
4.1. Aplikazio didaktikoa.....	22
5. Iturri bibliografikoak.....	23
ERANSKINAK	
1. Eranskina. Gelan burutzeko jarduerak.....	26

## EMAKUMEA ETA LITERATURA

### Emakumea subjektu eta objektu paperean

Oihane Elorriaga Elordui

UPV/EHU

Emakumea eta literatura betidanik lotuta egon dira. Gaur egun, emakumeek arrakasta dute merkatu editorialean eta hainbeste urtetan zehar euren literaturak izan duen kutsu peioratiboarekin amaitzen ari dira. Hala ere, gaur duten egoera eta prestigioa lortzeko, bide luzea egin behar izan dute. Hori dela eta, lan honen helburua emakumea literatura subjektu eta objektu moduan aztertzea da. Gure ingurune hurbilean, gaur egun, Mariasun Landa dugu emakume idazlearen eredu; horregatik, honen ezaugarri literarioak eta bere pertsonaia femeninoak aztertuko dira. Pertsonaia horien ezaugarri komunak, balioak eta nolakotasuna. Baita idazlearen estiloaren ezaugarri nabarmenenak ere. Emakumea, idazle eta pertsonaia paperean.

*Literatura, emakumea, garaikidea, pertsonaia, idazlea*

La mujer y la literatura siempre han estado unidas. Hoy en día, las mujeres triunfan en el mercado editorial y están acabando con el sentido peyorativo que se le ha dado a su literatura. Aún así, han tenido que recorrer un largo camino para ganarse el prestigio y el lugar que ocupan hoy. Por ello, el objetivo de este trabajo es analizar a la mujer como sujeto y objeto literario. En nuestro entorno más cercano, a día de hoy, Mariasun Landa es el modelo de mujer escritora; por lo tanto, se hará un análisis de sus características literarias y de sus personajes femeninos. Las características comunes, los valores y la personalidad de esos personajes. También, los rasgos literarios fundamentales de la escritora. La mujer, en el papel de escritora y personaje.

*Literatura, mujer, contemporánea, personaje, escritora*

Woman and literature have always been closed. Nowadays, women succeed in the publishing market and they are putting an end to the pejorative meaning that has been given to their literature. Even so, they have had a long way to go to achieve the prestige and the place that they have today. Therefore, the aim of this work is to analyze the woman as literary subject and object. In our closest society, today, Mariasun Landa is the model of woman writer; consequently, an analysis of his literary characteristics and his female characters will be done. The common characteristics, the values and the personality of those characters. Also, the fundamental literary features of the writer. The woman, in the role of writer and character.

*Literature, female, contemporary, character, writer*

## **SARRERA**

Orri hauetan aurkezten den lanean, emakumea eta literatura dira aztergai. Gaur egun, gero eta leku handiagoa dute emakumeek literaturan; gehien saltzen diren liburuen egileen artean kokatzen dira eta literatura sariak irabazten dituzte. Gauzak honela, emakumea literatura subjektu eta objektu moduan aztertzea da lan honen helburua, emakumea idazle eta pertsonaia paperean, alegia.

Horretarako, lehenbizi, emakumea eta literaturaren inguruan autore ezberdinek idatzi dutena bilduko da. Kontuan izango dira, besteak beste, Ciplijauskaité eta Garbí-ren iritziak, batez ere emakumearen idazteko estiloari erreferentzia egiten dioten horiek. Ondoren, emakumea subjektu eta objektu gisa aztertuko da. Horretarako, Mariasun Landaren ezaugarri literarioak eta haren pertsonaia femeninoak izango dira aztergai. Gero, pertsonaia horiek komunean dituzten ezaugarriak ondorioztatuko dira, baita Landaren estiloa gaur egungo emakumearen literaturaren barruan sartzen den ere. Azkenik, aplikazio didaktiko bat proposatuko da, non Landaren istorio bat izango den oinarri eta irakurketa ez sexista bat egiteko jarduera ugari proposatuko diren.

Lan hau iturri bibliografiko ezberdinen dokumentatze, analisi eta interpretazioaren bitartez burutuko da, eta horietan oinarrituta, Landaren bost obra zehatzen azterketa eta konparaketa egingo da gero.

Azkenik, ondorio moduan, Landaren pertsonaia femeninoen protagonismoa eta bere ezaugarri literario adierazgarrienak ikusiko dira, baita bere estiloa gaur egungo emakumearen literaturara nola egokitzen den ere. Hots, emakumearen azterketa, literatura subjektu eta objektu gisa.

## **1. MARKO TEORIKOA**

### **1.1. Emakumea eta literatura**

Emakumearen literatura ulertzeko, ezinbestekoa da literatura horrek izan duen bilakaera ezagutzea. Kasua da, bilakaera hori, emakumeak gizartean izan duen eboluzioarekin estu lotuta dagoela. Hots, emakumearen literatura aldatu da, bere egoera historian zehar aldatu egin delako. Gainera, emakumearen literatura bere hastapenetan dago oraindik,

izan ere, Roig-ek (1984) dioten moduan, bi mendeko tradizioa besterik ez dauka. Argi dagoena zera da; emakumea eta literaturaren arteko harreman estua betidanik existitu izan dela, itzalpean izan bada ere:

La Literatura, ha sido la expresión más accesible para la mujer. Quizás tenga mucho que ver la prioridad que, sobre el hombre, tendría la mujer en el dominio lingüístico, pero, también, en el orden social, el hecho de que, para escribir, no hace falta sino papel, pluma y soledad. [...] con la Literatura no se gana dinero, salvo en contadas ocasiones. (Garbí, 1997:78-79)

Horren harira, Patricia M. Spacks-ek (Garbí,1997) argi dio: emakumeak, bere askatasun osoa lortzeko, bai adierazpenarena, baita literatura egitekoarena ere, ezinbestekoa du lehendabizi errealitatean garaitzea. Garbí (1997) bat dator pentsamendu horrekin; are gehiago, gaur egungo idazle guztiei zuzentzen zaie, eta feminismoaren alde borroka egin behar dutela esaten die, ahalik eta arinen eta bizitzako eremu guztietan. Horrez gain, gaur egun emakumeen inguruan argitaratzen diren hainbat libururi kritika egiten die: “[...] no nos engañemos, si una persona, una mujer, en estos libros, es cosificada, sexualizada, toda su posible modernidad se resquebraja.” (Garbí,1997:15).

Roig (1984) haratago doa eta emakumeak historian zehar literaturan izan dituen rola aipatzen ditu, bakarrak eta muturrekoak: emakume ona edo gaiztoa, aingerua edo deabrua, María edo Eva. “No es de extrañar, pues, que en la literatura la mujer tenga la imagen que su creador haya decidido”, dio Roig-ek (1984:5), erlijio judeo-kristauak pentsamendu horretan izan duen eragina azpimarratuz.

Horrekin lotuta, jakina da, historian zehar, emakumea gizonaren menpeko izaki gisa kontsideratua izan dela. Gainera, bakoitzaren eremua ondo definituta egon izan da; produkzio artistikoa gizonarentzat, amatasuna emakumearentzat. Eta noski, bata ezin liteke bestearen osagarri izan (Roig,1984).

Freud-en ekarpena (1906-1924), gai horren inguruan, garrantzitsua izan zen: “es la inferioridad intelectual de la mujer, y su escaso poder de sublimación lo que le acarrea un débil superyó y una incapacidad para el arte y el pensamiento” (Garbí,1997:24). Hau da, emakumeak ez dauka literaturarako gaitasunik. Baina Freud haratago doa, eta emakumeak gizonen beharizan sexualak asetzeko baino haratagoko ahalmenik ez duela baieztatzen du (Garbí,1997). Freud-ek, zalantzarik gabe, gogor ekin zion gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunak finkatzeari: “tiene mucho empeño en

delimitar la feminidad y, casi siempre, su consideración hacia todo lo que incumbe a la mujer, es peyorativa.” (Garbí,1997:19). Gainera, Garbí-k (1997) argi azaltzen duen moduan, Freud-ek ez zuen emakumearen gutxiagotasun intelektuala arrazoi sozialengatik justifikatu nahi izan; alderantziz, nahiago izan zuen ezberdintasun anatomikoen marko biologikoan oinarritu.

Freud-en pentsamendu hori ondo ezagututa, Garbí-k (1997) emakume idazleak ez duela feminitatearen eskema freudiar hori jarraitu behar aldarrikatzen du. Alderantziz, maskarak eta eskemak apurtzeko bidea irekita duela dio, eta hala egin behar duela, artista oren moduan, nahiz eta emakumeak apurtu beharreko kate gehiago dituen. Virginia Woolf-ek ere (1992:192) bat egiten du pentsamendu horrekin: “Sería una lástima terrible que las mujeres escribieran como los hombres, o se parecieran físicamente a los hombres, porque dos sexos son ya pocos, dada la vastedad y variedad del mundo”.

## **1.2. Emakumearen literaturaren bilakaera**

Elaine Showalter-ek (1977), Ciplijauskaité-k (1988) batzen duen moduan, hiru etapa nagusi bereizten ditu emakumearen literaturaren eboluzioan: lehena, literatura femeninoa, tradizioari egokitua eta emakumearen papera existitzen den legez onartzen duena; bigarrena, feminista, asaldatzaile eta polemiko aurkezten dena; eta hirugarrena, gaur egungoa, emakumearena, auto-ezagutzan oinarritzen dena.

Ciplijauskaité-k (1988), bere aldetik, eboluzio hori 5 fasetan banatzen du. Lehenengoa, nobela femeninoa auto-biografia gisa; egoera sozial baxuak eragindako sormen eskasa, aitortza-tonua eta intimismoa, eta larritasuna eta mina dira ezaugarri nagusiak. XVIII. mendean, Roig-ek (1984) azaltzen duen moduan, emakume idazleak izen maskulinoekin aurkezten hasi ziren, eta pertsonaia femeninoen bitartez, gutxiengo horren marjinazioa adierazi zuten (Anna Karenina, Madame Bovary, La Regenta, Pilar Prim).

Lehen fase horrek bigarren fase bati, kontzientzia-nobelari ematen dio bide. Emakumearen kontzientzia da protagonista, eta barne-esperimentazioa, ikerketa, gogoeta, memoria eta oroitzapenak, lehen esperientzia sexuala, belaunaldi ezberdinetako emakumeen arteko ezberdintasunak, maitasuna, identitatearen bilaketa, eta hezkuntza erlijiosoari eta etxeko errutinari egindako salaketak gailentzen dira. Fase

honetan, emakumea idazle moduan aurkezten da gizartean, baita izaki politiko eta sozial moduan ere. Obra batzuk aipatzearen, hemen aurki ditzakegu Carmen Laforet-en *Nada* (1944), Mercé Rodoreda-ren *La plaça del Diamant* (1960) eta *Mirall trencat* (1974), Montserrat Roig-en *Ramona, adéu* (1970-72) eta *L'òpera quotidiana* (1991), Ana María Moix-en *Julia* (1970) eta Rosa Romá-ren *La maraña de los cien hilos* (1976). Kontzientziarekin erlazionaturik, aipatzekoa da emakumeak literaturan eta historian zehar zoroaren irudiaz egin duen erabilpen handia (Garbí,1997). Toril Moi-ren ustez, irudi horrek, emakumeen berezko zatitze sentimendua adierazteko balioko luke, direnaren eta izan beharko liratekeenaren artean existitzen den desadostasuna, hain zuzen ere (Garbí,1997).

Hirugarren fasea dator gero, nobela psikoanalitikoak; horrek, “ni”a aurkitzea du helburu, “ni” hori nola sortu den, alegia. Auto-ezagutzatik auto-kreaziora igarotzea suposatzen du fase horrek, “maskara” kenduz eta independentzia eta botere hitzak azaleraraziz. Ezberdintasunak positiboki hartzea ahalbidetzen du, norberaren ezagutza emozional, arrazional eta zientifikoa. Etapa honetan kokatzen dira, besteak beste, Elena Quirogaren *Viento del Norte* (1951), Carmen Martín Gaitere-ren *El balneario* (1955), *Retahílas* (1974) eta *El cuarto de atrás* (1978), Ingeborg Bachmann-en *Malina* (1971), Erika Kaufmann-en *Transfert* (1974), Marie Cardinal-en *Les Mots pour le dire* (1975), Lourdes Ortiz-en *Luz de la memoria* (1976) eta Esther Tusquets-en *Para no volver* (1985).

Laugarren fasea, nobela historikoa, transformazio sozialak definitzen du eta emakumearen “konturatzea” ematen da. Mito eta figura klasikoak birformulatu egiten dira, diskurtso tradizionalari uko egiten zaio eta emakumearen emantzipazioa eta independentzia defendatzen dira. Barne-mugimenduak eta motibazioa azaleratzen dira fase honetako nobeletan, naturaltasuna nagusituz eta lehen pertsonan egindako narrazioari eta pasarte lirikoei bide emanez. Marguerite Yourcenar-en *Mémoires d'Hadrien* (1951), Jeanne Bourin-en *Très sage Héloïse* (1966) eta Lourdes Ortiz-en *Urraca* (1982) dira obra aipagarriak etapa honetan.

Azkenik, bosgarren faseak feminismoaren korrontearekin bat egiten du eta idazkera asaldatzailea gailentzen da. Honetan, errebindikazio erotiko/sexuala egiten da, finkatutako estrukturak ukatzen dira eta protesta lirikoa gailentzen da. Azken horren ildotik, emakumeak bere izaera femeninoaren barruan indar handia aurkitu ahal duela

defendatzen da, berezkoa duen sormen eta potentzial poetikoa direla medio. Nobeletan, emakumearen eskubideak erreklamatzeko dira, gizartean duen egoera salatzen da eta zentsurarik gabeko hizkuntzaren alde egiten da. Violette Leduc-en *La Batarde* (1964), Monique Wittig-en *Les Guérillères* (1969) eta *Le Corps lesbien* (1973), Ana María Moix-en *Walter ¿por qué te fuiste?* (1973), Esther Tusquets-en *En el mismo mar de todos los veranos* (1978), Rosa Montero-ren *Crónica del desamor* (1979), Elsa Morante-eren *Aracoeli* (1982), Marta Portal-en *Un espacio erótico* (1982) eta Adelaida García Morales-en *El silencio de las sirenas* (1985) dira adibide aipagarriak.

Hala ere, azken fase horri dagokionez, Garbí (1997) nobela feminista hori mugaraino eramatearen arriskuaz ohartzen da, horrek ekar litzakeen ondorioak aipatuz. Horien artean, hauek aipatzen ditu: lengoaiari dagokionez, eredu patriarkalaren moduko beste eredu zurrun bat sortzea; idazkeraren inguruan, berriz, ez ditu ulertzen abstrakzioa alde batera utzi eta gorputzaren lengoaiarekin idaztea defendatzen duten feministak. Askatasunak ez duela mugarik dio, gorputza ezin dela bere muga izan. Hots, emakumeak bere osotasunetik idatzi behar duela. Azkenik, gorputzaren mugaren harira, zera baieztatzen du:

La mujer, no debe limitarse a lo concreto, lo cerrado, el tacto, el cuerpo. Sería un grave error para el feminismo. Entre otras cosas habríamos caído en la trampa de seguir considerando al hombre el detentador de lo universal, del pensamiento. Y el pensamiento es poder. [...] (las feministas) no deberían, en absoluto, renunciar a ese otro modo de poder mucho más sutil: el del pensamiento. Es absolutamente nuestro. Renunciar a él equivale a un suicidio: a que nos sigan pensando, con un pensamiento que, en muchas ocasiones, nos degrada y nos margina. (Garbí,1997:85)

Beraz, emakumearen literaturaren bilakaera bost puntutan laburbildu daiteke (Ciplijauskaité,1988): errealitate soziala deskribatuz, errealitate psikologikoa azaltzera igaro da; ezarritako estrukturak alde batera utzi, eta konfigurazio libreak gailendu dira; lengoia konbentzionaletik, espresio pertsonal eta anitzera igaro da; ahozko, espontaneo eta inprobisatu horri eman zaio lehentasuna; eta, azkenik, aurkezpen liriko biziak nagusitu dira, sentimentalak izan gabe beti.

### **1.3. Emakumearen literatura gaur egun**

Gaur egungo emakumearen literatura, etapa ezberdinen eboluzioaren emaitza da. Ciplijauskaité-k (1988) bere lanean azaltzen duen moduan, emakumearen literaturak



espontaneoki hautemandako ñabardura txikietan jartzen du arreta, inprobisazioari lekua emanaz. Sormena, beraz, elementu oso garrantzitsua bihurtzen da, idaztearen bitartez emakumea bera sortzen delako. Horrela, bere identitatea eta esentzia aurkitzen ditu: “es la Literatura, para la mujer, casi la única vía de expresión. [...] también una posibilidad de sentirse libre, de ser.” (Garbí,1997:79).

Horrez gain, mito eta arketipoetara bueltatu eta horiek interpretatu eta transformatu egiten ditu, oinarri mitiko berria sortuz eta gizonaren konstituzioaren inguruko abantailak desmitifikatuz, metamorfosia helburu izanik. Garbí-k (1997) azaltzen duen moduan, emakumeak inposatutako markoarekin bukatzea bilatzen du, inposatutako ereduak irauliz.

Gainera, hainbat kontzientzia foku ezberdin alternatzen ditu, perspektiba ugari dituen literatura baita. Deskribapenak, begiratzen duen horren ikuspuntutik eraikitzen dira eta ondorioz, ikuspegi bat baino gehiago azaltzen dira. Horrek eragiten du inkontzientea den hori kontziente bihurtzea. Are gehiago, pertsonaien garrantzia banatzen da; izan ere, emakumearen burmuinak mundua harremanen sare gisa ulertzen du, eta hori literaturan islatzen da, esan bezala, pertsonaia guztiek baitute garrantzia. Garbí-k (1997) azaltzen duen moduan, egitura polifonikoak eta dialogikoak lehenesten dira.

Bestalde, emozioen pertzepzioak zuzenean transmititzen zaizkio irakurleari eta lehen pertsonaren erabilera gailentzen da, bakarriketari eta auto-azterketari lekua emanaz. Roig-ek dioenez (1984), oraindik marjinaltasun kontzientziarekin idazten jarraitzen da, intimismoari eta autobiografiari erreferentzia eginez. Horrez gain, Garbí-k (1997) esaten duenez, denbora modu kualitatiboan hautematen da, memorian gordeta geratzen den hori positiboki ulertuz eta horretan enfasia jarritz. Horregatik dago haurtzarora bueltatzeko ohitura, eta ametsek garrantzi handia hartzen dute, auto-ezagutzarako ezinbesteko elementu bihurtuz.

“Ni”a etengabeko prestakuntzan dagoen izaki moduan aurkezten da eta auto- ironiaren bidez lortzen du bere benetako izaeraren baieztapena. Ironiaren inguruan, Ciplijauskaité-k berea egiten du Beatts-en iritzia: “Los hombres temen a la mujer que intenta ser divertida, porque el humor es equivalente a agresión” (1988:222). Garbí (1997) bat dator horretan eta ironia horretan ikusten du emakumeek iraganeko garaietan izan ez duten umore eta autonomiaren esanahia.

Horrez gain, emakumearen literaturan oso ohikoak diren zenbait irudi eta sinbolo aipatzen ditu Ciplijauskaité-k, horien artean, txoriak (mugimendua), ura (jariakortasuna, etengabeko transformazioa), etxea (babeslekua), itsasoa (aldiberekotasuna, etengabeko iraupena, sakonera misteriotsua, nolakotasun labainkorra) eta labirintoa (inplikazio mitikoak). Garbí-k (1997), gainera, barruko lekuekiko lehentasunaz hitz egiten du, nitxoak eta haitzuloak esaterako, feministek sexuarekin erlazionatzen dituztenak.

Argi dagoen beste ezaugarri bat zera da; isiluneei garrantzia ematen zaie, aurrearrazionala den horri, hitzari zentzu intelektuala kendu egin nahi baitzaio eta jaio berria balitz bezala eguneratu. Horren harira, testuak zatikatuta aurkezten dira askotan, koherentzia eta amaiera irekirik gabe, eta trama linealari uko egiten zaio. Irakurlearen partetik kolaborazioa eskatzen duen literatura da emakumearena.

Azkenik, erabiltzen den lengoaia indarrez betea dago eta erabakigarritasuna islatzen da. Heredatutako lengoaia eta diskurtsoa ukatu eta emakume moduan hitz egiteko interesa azaltzen da: analizatu, galderak planteatu, aspektu ezezagunak deskubritu, ... Gauzak kuestionatu egiten dira. Eredu intelektuala alde batera utzi eta gorputzarekin eta emozioekin idaztea lehenesten da. Horrekin, irakurleari sentiaraztea bilatzen da, irakurleak erreakzionatzea.

Laburbilduz, azken urteotako emakumearen literatura nobela kontzientziaduna da, non emakumearen psikea aztertzeke eta aurkezteke askatasun handiagoa dagoen. Emakume berria agertzen da, erabat kontzientea, ikuspuntu femeninoa duena eta diskurtso espezifiko jarraitzen duena.

Aldiz, idazkera femenino espezifikoaren kontua, Ciplijauskaité-k (1988) dioen legez, airean dago oraindik, esperimentazio fasean aurkitzen da. Lexiko femeninoak, esaterako, hitz gutxiago dituela dio; hala ere, erabiltzen den lengoaia sexuala askoz ausartagoa da, errealistagoa. Beraz, emakumeak bere lengoaia bilatzen jarraitzen du, propioa alegia, Patrizia Violi-k azaltzen duen moduan: “las mujeres se encuentran atrapadas en una situación paradójica: situadas como sujetos hablantes en un lenguaje que ya las ha construido como objetos” (Garbí,1997:76). Egoera horren zergatia zein den ere azaltzen du Violi-k: “No encontramos en la lengua ni en la teoría que la describe el reflejo de dos sujetos diversos, sino la forma de una sola subjetividad, la masculina, asumida como universal” (Garbí,1997:77). Are gehiago, pentsatzekoa den galdera bat

proposatzen du: “¿Cómo pensar en la posibilidad de una palabra distinta, si falta una elaboración sobre la particularidad del sujeto femenino?” (Garbí,1997:78).

Beraz, hori da gaur egun emakumearen literaturaren erronka: emakumeak hitza, bere hitza, sortu, definitu, erabili eta idaztea. Esan bezala, emakumeak bere lengoaia propioa bilatzen jarraitzen du. Ingrid Cella-k dioen moduan: “Los hombres construyen, las mujeres escriben hacia lo desconocido.” (Garbí,1996:78)

## 2. METODOLOGIA

Lan teoriko honetan erabilitako metodoa edo prozedura, bi motatakoa izan da: bata, gaiaren inguruan dokumentatzea, eta bestea, dokumentazio hori oinarri izanik, praktikan egin den azterketa eta analisisia.

Dokumentatzeari dagokionez, lehenengo urratsa, orain arte emakumea eta literatura gaiaren inguruan idatzita dagoen bibliografia ezagutzea izan da, lana nondik bideratu jakin ahal izateko. Horretarako, irakurketa ugari egin dira, eta dokumentatzeko hainbat iturri bibliografiko kontsultatu dira, bai irakasleak gomendatutakoak baita norberak egindako bilaketen ondorioz aurkitutakoak ere. Beraz, bibliografia iturri elektronikoak eta inprimatuak erabili dira, horien artean, autore ezberdinen liburuak, Interneteko iturri ezberdinak, iritzi artikulak, entseguak eta gaiaren inguruan idatzi izan diren beste hainbat dokumentu. Ondoren, lanean garatu beharreko atalak ezarri dira, eta datu eta informazio horren guztiaren artean, atal horiei erantzuten dien informazioa hautatu da, hots, lanerako baliogarriena eta interesgarriena. Azkenik, informazio horren analisisia, interpretazioa eta lanaren eskakizunetarako egokitzapena burutu da.

Alde praktikoagoari begira, honetan, emakumea literatur subjektu eta objektu gisa aztertu da. Horretarako, emakume idazle bat (Mariasun Landa) eta horren bost obra aukeratu dira. Behin aukeraketa eginda, liburu horien azterketa egin da; lehendabizi, pertsonaia femeninoen analisisia, eta ondoren, idazlearen estiloaren eta kontamoldearen azterketa. Pertsonaia femeninoen analisiari dagokionez, euren banakako analisisia egin da lehenengo, euren nolakotasuna aztertu da: izaera, baloreak eta ezaugarriak. Gero, bost pertsonaia horien konparazioa egin da, eta euren arteko puntu komunengatik inguruan ondorioak atera dira. Idazlearen estiloari dagokionez, estilo hori bere liburuetan zein

eratan islatzen den aztertu da, eta gaur egungo emakumearen literatura estiloaren barruan kokatzen den ala ez ondorioztatu da. Horretarako, aurretik, idazlearen bizitza eta haren ibilbide literarioari buruzko informazioa jasotzea ezinbestekoa izan da. Bere web orria bisitatzea izan da onena, bertan idazlearen inguruko informazio ugari eskaintzen baita.

Azkenik, eskolarako aplikazioa burutu da eta horretarako, lanean landutako alde teorikoa eta praktikoa hartu dira kontuan, eta aztertutako liburu bat erabili da eredu gisa.

### **3. LANAREN GARAPENA: IPUINEN ANALISIA**

Lanaren garapenerako idazle bat aukeratu da, horretarako lau baldintza ezarriz; bata, idazlea emakumea izatea; bigarrena, protagonistak emakumeak diren liburuak idaztea; hirugarrena, haur eta gazte literaturara dedikatzen den idazlea izatea; eta laugarrena, euskaraz idaztea.

Baldintza horiek kontuan hartuta, Mariasun Landa Etxebeste (Gipuzkoa, 1949) idazlea aukeratu da, eta berak idatzitako bost liburu, non pertsonaia nagusiak emakumeak diren eta idazlearen estiloa aztertzeko aukera dagoen. Hauek dira aukeratu diren liburuak: *Amets uhinak* (1982), *Elisabete lehoi domatzailea* (1983), *Txan fantasma* (1984), *Amona, zure Iholdi* (2000) eta *Maitagarria eta desioa* (2012).

Liburu bakoitzean, protagonistaren azterketa egin da lehendabizi, bere izaera eta esentzia definituz. Ondoren, idazlearen ezaugarri literarioak aztertu dira, eta liburu bakoitzean non eta zein modutan islatzen diren azaldu.

#### **3.1. Amets uhinak**

Ipuin bilduma honetan, pertsonaia ugari dira protagonistak, istorio bat baino gehiago kontatzen baitira. Hala ere, pisu eta garrantzi gehien hartzen dutenak protagonista femeninoak dira. Haiek dute ahotsa, eta horietan jarriko dugu arreta.

Protagonistak: Mikaela (*Mikaela detektibea* ipuinean); Uxue eta Txepetx (*Komedianteak* ipuinean); eta Opil (*Opil* ipuinean)

Lau protagonista hauek hiru istorio ezberdinetan kokatzen dira.

Mikaela, herri bateko tabernaria da. Neska argia da, oso langilea eta bihotz zabalekoa. Herriko jendearen arazoei irtenbidea bilatzen eta haien buruhausteak konpontzen aparta da, ez dago bera moduko beste bat. Aholkulari ezin hobea da Mikaela eta detektibe papera bikain betez, istorioan, bere laguna den Joxe arotzari dirua nork lapurtu dion asmatzen lagunduko dio.

Frantziska, “Txepetx”, komedianta talde bateko kidea da, pandero jolea. Ez dauka gurasorik, eta haiek bere kargu utzi zuten gizonaren agindupean bizi da. Azken honek lanerako baino ez du nahi neskatoa. Ez daki idazten, ezta irakurtzen ere; analfabetoa da. Hala ere, badaki bere bila dabilela osaba bat, hilda zegoela pentsatzen zuten osaba. Uxue, herrian ezagutzen duen neskatxa batek, hura bilatzen lagunduko dio. Biak, betiko lagun egingo dira.

Mirentxu, “Opil” ezizenaz ezaguna, herriko gozotegiko pastel, tarta eta opilak etxez etxe banatzeaz arduratzen da. Bihotz onekoa neska da, eskuzabala. Familia txiro batean bizi da, herriaren kanpoaldean. Bere ama alarguna denez, bere soldata oso beharrezkoa egiten zaie etxean familia mantentzen laguntzeko. Herrian oso maite dute Opil, batez ere herriko haurrek, izan ere, behin baino gehiagotan lagundu izan die arazoren baten eta beti dauka gordeta gozokiren bat haientzat. Ondo doakio bizimodua Opili, harik eta egun batean bere lanetik bota egiten duten arte.

### Idazlearen estiloaren eta kontamoldearen islapena

Istorio hauetan, emakume protagonistak dira garrantzi gehien hartzen dutenak, indarrez beteak azaltzen baitira eta euren pertsonaiak askoz ere landuagoak baitaude. Gainerako pertsonaiak bigarren plano batean geratzen dira, baina ezinbestekoak bihurtzen dira, protagonistei laguntza ematen baitiete euren helburuen betetze horretan.

Intriga eta umorea nagusitzen dira istorio hauetan, eta batez ere, fantasia; munduan zehar bidaiatzen duen igogailu hegalaria (*Igogailu bihurria*), Eguzkiarekin hitz egin daitekeen eta imajinatu ahal den oro posible den planeta liluragarria (*Txaf planetaf*), hitz egiten duten marrazkiak eta emakume forma duten boligrafoak (*Bart gaueko bilera*), ... Maitasuna, solidaritatea eta laguntasuna moduko gai sakonak era oso sinple eta samurrean tratatzen dira, baita heriotza den gai gogorra ere (*Maisu zakarraren testamentua*). Injustiziak ere salatzen dira, hala nola, Opil arrazoirik gabe lanetik bota

egiten dutenean, baita injustizia ezberdinei erantzuteko mendekuak ere; lorittoa, bere kapitainaren heriotzaz mendekatzen denean (*Lorito mendekaria*).

Garrantzi handia ematen zaie ametsei, azken finean, ametsen bilduma baita liburu hau. Idazleak nahiago du amets horiek kontatzeko 3. pertsona eta lehenaldia erabili. Horrez gain, badaude istorioak non orainaldian eta lehen pertsonan hitz egiten hasten den, eta flash back-a erabiliz, lehenaldira bueltatzen den istorioa kontatzeko. Hots, memoriaren erabilera egiten da, iraganeko oroitzapenak, bizipenak eta ametsak kontatzeko.

Denboraren igarotzeari ere egiten zaio erreferentzia, eta horrekin batera, ume izateari uzteari eta inozentzia galtzeari. Haurtzaroa atzean uzte horri, hain zuzen ere; egun batetik bestera, Asierrek piraten abenturetara jolasteari uzten dio, etapa bat itxi eta besteari atea irekiz. Aldaketa horrek suposatzen duen tristura ere islatzen da (*Azken bidaia*).

Azkenik, istorio bilduma honetan ez dira animaliak falta; hontzak, txoriak, igelak, loritoak eta uzoak, kasurako. Itsasoari ere hainbatetan egiten zaio erreferentzia.

### **3.2. Elisabete lehoi domatzailea**

Protagonista: Elisabete “Eli”

Istorio honetako pertsonaia nagusia Elisabete da, bera da protagonista. Neska ausarta eta bihotz onekoa da Eli, indarrez betea dagoena, beldurrik ez duena eta bere helburuak betetzea lortzen duena. Bere adinerako gauzak oso argi ditu, eta horien artean, nagusitan zertara dedikatu nahi duen bere bizimodua; zirkoko domatzailea izatea da bere nahirik handiena, eta gau batez bada ere, amets hori egia bihurtzea lortuko du. Zirkoa da bere mundua, nahiz eta festa eta parranda ere oso gustuko dituen.

#### Idazlearen estiloaren eta kontamoldearen islapena

Pertsonaia femeninoak, Elik, du ahotsa eta garrantzia istorio honetan. Honek, oztopo eta gurasoen zigorren gainetik, bere bizitzako helburu nagusia betetzea lortzen du: zirkoko lehoi domatzailea izatea gau batez. Aipatzekoa da, Eliri, Tota lehoi emeak laguntzen diola bere ametsa gauzatzen. Hemen ere badaukagu beste pertsonaia femenino bat, protagonistari lagundu eta paper garrantzitsua betetzen duena. Gainera, bere bikotea den

lehoi arra bigarren maila batean geratzen da, lehoi ar batengandik espero diren ezaugarriak hankaz gora jartzen baititu Totak, umore eta ironia puntu batekin.

Aurrekoaren harira, istorioan uneoro agertzen dira animaliak, lehoiak eta elefanteak, eta idazleak pertsonifikatu egiten ditu: Elirekin zirkoan lan egiten duten lehoiek, esaterako, hitz egiten dute eta sentimenduak adierazten dituzte.

Horrez gain, 1. pertsonan dago idatzita istorioa, hots, Eli bera da hitz egiten duena. Narratzailea eta pertsonaia aldi berean. Flash back-az baliatzen da, denboran atzera egin eta bizi izandako esperientzia kontatzeko. Beraz, memoriaren erabilera egiten du Elik, iraganeko istorio bat azaltzeko.

Azkenik, fantasia gailentzen da istorio honetan. Izan ere, irakurleari zalantza bat geratzen zaio istorioaren bukaeran: ezin da jakin Elik bere ametsa errealitatean egia bihurtzea lortu duen ala berak amestutako zerbait izan den. Beraz, errealitatea eta fantasia nahasten dira, eta irakurlea da istorio horren amaiera zein izan litekeen suposatutako behar duena. Amaiera, beraz, irekia da.

### **3.3. Txan fantasma**

Protagonistak: Txan eta Karmentxu

Bi dira protagonistak istorio honetan: Txan eta Karmentxu. Lehena, fantasma txiki eta potoloa da, bere bizimoduarekin gustura ez dagoena eta, bakarrik, beste bizimodu baten bila joatea erabakitzen duena. Ausarta, ona eta leiala da Txan. Bigarrena, Karmentxu, aparteko neska da, berezia, bakarriketan aritzea gustuko duena baina festak ere oso gogoko dituena. Karmentxuren hainbat jarrera autismoarenak diren jokaerekin erlazionatu daitezke. Neska umezurtza da, bakarrik sentitzen da eta kariño falta du. Dударik gabe, ona, eskuzabala, ausarta eta zertxobait bihurria da Karmentxu; arraroa izebarentzat eta gaixoa medikuarentzat.

Oso ondo konpontzen dira istorio honetako bi protagonistak, eta elkarrengan aurkitzen dute falta zaiena; jolasteko eta hitz egiteko lagun on bat, harik eta egun batean, Karmentxu, Arraroen Etxean sartzen duten arte.

### Idazlearen estiloaren eta kontamoldearen islapena

Oso antzekoak dira protagonista biak, eta elkarrengan aurkitzen dute bizitzeko behar duten zorientasun eta kariño hori. Bai Txanek bai Karmentxuk, bakoitzak bere erara, gizaki marjinalen bakardadea, tristura eta inkomunikazioa adierazten duten pertsonaiak dira.

Horren ildotik, gai gogor bat azaltzen da istorioan; Karmentxu umezurtza da, ez du gurasorik eta bera ulertzen ez duen izeba batekin bizi da. Bere gela da bere mundua, bere babeslekua eta bere jostailuak dira bere lagunak.

Bereziki lantzen den beste gai bat lagunen arteko harremana da, era oso samur eta hunkigarrian; Txan fantasmak Karmentxuri esaten dio Arraroen Etxetik irten arte itxarongo diola. Arraroen Etxea erabiltzen du idazleak, nolabait zoroen etxea adierazteko, bertan sartzen baitute Karmentxu. Horren harira, gaur egungo gizarteari kritika egiten zaio eta horren absurdoa uzten da agerian: Karmentxu gainerakoak ez bezalakoa izateagatik sartzen dute Arraroen Etxean. Injustizia hori salatu nahi du Txanek. Errealismo kritikoa nabarmentzen da, fantasia puntu batekin.

Jostailuak pertsonifikatu egiten ditu idazleak; hitz egiten dute eta sentimenduak adierazten dituzte. Txan fantasma ere pertsona gisa aurkezten zaigu. Beraz, fantasiazko istorioa dela argi dago. Eta noski, animaliei ere erreferentzia egiten zaie; zaldiak eta itsas karakola aurkitzen ditugu.

Halaber, istorioa 1. pertsonan idatzita dago, eta Txan fantasma da hitz egiten duena. Orainaldian zuzentzen zaio narratarioari baina iraganera bueltatzen da Karmentxurekin bizi izandako istorioa kontatzeko. Berriz ere, memoriaren erabilera egiten da iraganean gertatutako bizipen bat kontatzeko. Beraz, flash back baliabidea erabiltzen du idazleak.

Azkenik, amaiera irekia eskaintzen digu idazleak; Txan fantasma Karmentxu noiz aterako itxaroten geratzen da farola baten gainean. Ez dakigu istorioak nola jarraituko duen; irakurlearen esku geratzen da hori.



### **3.4. Amona, zure Iholdi**

#### Protagonista: Iholdi

Istorio honetan, Iholdi izeneko neska da protagonista; pertsonaia femeninoa da, beraz, nagusi. Bihotz oneko neska da Iholdi, pazientziaduna, batez ere Martin bere lehengusuarekin. Imajinazioz betea dago eta arazoak bere kabuz konpontzen dituen neska da, egoerei aurre eginez. Horretan, bere amonaren laguntza dauka, eta haren aholkuak jarraitzen ditu beti. Neska argia eta azkarra da Iholdi, zalantzarik gabe. Hori bai, inork jakin nahi ez duen sekretu bat dauka; noizbehinka, ohean pixa egiten du. Bere lehengusuak, ordea, badu sekretu horren berri, eta mehatxupean dauka Iholdi.

#### Idazlearen estiloaren eta kontamoldearen islapena

Iholdi da pertsonaia nagusia istorio honetan, bera da protagonista. Honek, bere lehengusuaren mehatxuei aurre egiteko eta horiekin betirako bukatzeko konponbidea bilatzen du. Neska ausarta da, beraz, Iholdi. Horretan, bere amonaren aholkuak ditu lagungarri; horiek erabiltzen ditu arazoak konpontzeko. Hemen, bigarren pertsonaia femenino baten garrantzia gailentzen da, amonarena, protagonistaren helburua betetzeko funtsezko papera betetzen baitu.

Horren harira, familiako kide baten heriotza moduko gai gogorra normaltasunez eta era samurrean tratatzen da istorio honetan. Iholdiren amona hilda dago, zeruan, berak esaten duen moduan, eta harekin egunero hitz egiten du. Gutunak idazten dizkio, aholku eske.

Animaliak ez dira falta istorioan zehar; ohikoa denez, ugari agertzen dira, horien artean, ahateak, beltxargak, sakatsak eta usoak, baita inurriak ere.

Bestalde, ipuina orainaldian eta 1. pertsonan idatzita dago, eta Iholdi bera da hitz egiten duena, amonari hitz egiten ariko balitzaio bezala. Memoriak baliatzen da harekin bizi izandako oroitzapenak eta bizipenak azaltzeko. Beraz, flash back baliabidea erabiltzen du haurtzarora bueltatzeko.

Azkenik, sexu estereotipoak onartzen ez dituen neska da Iholdi; argi dauka ez duela neska kakatia izan nahi, bere lehengusuak esaten dion moduan, eta egoerari buelta ematea erabakitzen du. Horretarako, konponbide bat bilatzeaz arduratzen da eta bere lehengusuari aurre eginez, bere mehatxuekin betiko amaitzea lortzen du, bera izanik, orain, gainera, lehengusua bere eskuetan duena.

### 3.5. Maitagarria eta desioa

#### Protagonista: Ezbai

Ezbai izeneko neskatoa da istorio honen protagonista, pertsonaia femeninoa beraz. Neskato berezia da Ezbai; hizkuntza ugari ulertzeko gai da, eta bere amari gertatzen zitzaion moduan, ez dauka itzalik. Sorgina dela uste dute batzuek, eta idazleak zalantza uzten du airean. Neska argia da, ederra eta bihotz onekoa. Kuriositatez betea dago eta idaztea oso gustuko du. Erabakiak hartzen dituen neska da Ezbai; sortzailea, inizatibaduna eta bizitza bere kabuz aurrera ateratzen dakiena. Indartsua eta ausarta da Ezbai, eta hori argi ikusiko da Maitagarriaren desioaren eskaintzaren aurrean berak duen erantzunean. Baina, aparteko neska da: ezohiko ahalmenak ditu gauzak hautemateko, besteek ikusten ez dutena ikusteko eta gainerakoentzat arrotzak diren sentazioak izateko.

#### Idazlearen estiloaren eta kontamoldearen islapena

Aurrean esan bezala, istorio honetako protagonista pertsonaia femeninoa da, Ezbai. Eta honek, bere bizitza osoan zehar bere ondoan duen lagun bat dauka, Maitagarria. Berrero ere, protagonistari laguntzen dion eta istorioan paper garrantzitsua betetzen duen beste pertsonaia femenino bat dugu.

Istorio honetan ere animalien aipamen ugari egiten dira, besteak beste, txolarrea eta antxoa agertzen dira, baita inurriak ere.

Istorio hau kontatzen ari dena protagonista da, Ezbai, eta narratarioari zuzenean kontatzen ari zaio istorioa. Berak betetzen du, aldi berean, protagonista eta narratzailearen papera. Horretarako, orainaldian eta 1. pertsonan idazten du narratarioari zuzentzen ari zaionean. Istorioa gogoratzean, aldiz, lehenaldia eta hirugarren pertsona erabiltzera pasatzen da. Memoriaren erabilera agerian uzten da hemen ere, iraganeko bizipen eta oroitzapenetara bueltatzeko grina. Horretarako, idazleak, flash back baliabidea erabiltzen du.

Sentimendu eta gai gogorrak lantzen dira istorioan zehar, horien artean, maitasuna (lagunartekoa, familiakoa, bikotekidearena), laguntasuna, guraso bakarreko familia (Ezbai umezurtza da) eta pertsona maitatuen heriotza. Modu samurrean eta normaltasunez lantzen dira gai horiek. Horrez gain, zibilizazio modernoari kritika ere

egiten zaio eta globalizazioaren arriskuez ere hitz egiten da: gerrak, krisia, langabezia, pertsona nagusiak bertan behera uztea eta bakardadea, gaurko gizartearen ilusio falta, sare sozialen hedapena, pertsonen arteko inkomunikazioa, ... Azkenik, guraso eta seme-alaben arteko komunikazioari eta lanen banaketari egiten zaie aipamena.

Aipatzekoa da Maitagarriaren figura. Istorioari fantasia kutsua ematen dio honek eta denborari garrantzia emateko erabiltzen du idazleak. Gizakien denbora zein arin igarotzen den adierazteko eta haren hauskortasunari garrantzia emateko erabiltzen du Maitagarriaren figura. Hots, idazleak figura hori erabiltzen du gizakia duen denboraren garrantziaz ohartzeko.

Bukatzeko, aipatzekoa da istorio honetan transmititzen den ikasbidea: bizitza ilusioz bizitzea baino gauza hobetik ez dago. Ilusioa izatea eta egunero desiratzen jarraitzea da eska dezakegun desiorik handiena, Ezbaik egiten duen moduan.

#### **4. ONDORIOAK**

Ondorioekin hasteko, alde batetik, Mariasun Landaren pertsonaia femeninoei egin behar zaie erreferentzia. Aztertutako bost liburuetako pertsonaia femeninoek, zalantzarik gabe, ezaugarri ugari dituzte komunean. Izan ere, nesken estereotipoak buelta ematen dieten pertsonaiak dira; printzesak alde batera utzi, eta neska errealak aurkezten dira bost obra hauetan. Pertsonaien baloreak gailentzen dira, euren fisikoaren eta edertasunaren gainetik. Beste era batera esanda, neska normalak aurkezten dira, inguruan aurki ditzakegun neskak. Horrek eragiten du, dudarik gabe, irakurlea pertsonaia horiekin identifikatuta sentitzea.

Esan bezala, sexu estereotipoak hankaz gora jartzen dituzten pertsonaiak dira. Haiek dira protagonista bakarrak, garrantzitsuenak istorioan. Pertsonaia osoak dira, aberatsak. Indarrez beteak aurkezten dira, eta bizi dituzten egoera gogorrei aurre egin edota arazoak konpontzeko ahalmena dute. Ez dira euren errealitatea onartzearekin konformatzen. Hura aldatzeari ekiten diote. Independentek dira, ideiak argi dituzte, eta eurek ezartzen dituzten helburuak lortzeko, euren kabuz jarduten dute. Bihotz oneko neskak dira, baina argiak eta azkarrak ere bai, eta euren adinaren berezko inozentzia azaleratzen dute tarteka. Ameslariak dira, abenturazaleak, eta bihurriak ere bai. Gainera,

guztiek daukate besteengandik ezberdin egiten dituen zerbait, berezi egiten dituen ezaugarria. Horrek eragiten du pertsonaia guztiek nolakotasun komuna edukitzea, eta aldi berean, bakoitzak bere esentzia izatea. Pertsonaiak samurrak dira, maitagarriak, irakurleari berehala hurbilekoak egiten zaizkionak.

Bestetik, idazlearen estiloari eta kontamoldeari buruz hitz egin behar da. Zehatzagoak izateko, bost obra hauetan gailentzen diren adierazle estilistiko komunetan jarri behar da arreta, nagusitzen diren horiek azpimarratuz. Izan ere, errealitatea eta fantasia uneoro nahasten dituzten istorioak dira. Gehienetan, gainera, errealitate gogorra islatzen da, eta nolabait hori konpentsatzeko, irtenbide fantastikoak azaltzen dira, non ametsak paper garrantzitsua betetzen duten. Egunero aurki ditzakegun egoera gogorrak ageri diren istorioak dira, emozio eta sentimendu gogorrez beterikoak. Hala ere, umorea eta ironia falta ezin diren elementuak dira. Animaliekin ere gauza bera gertatzen da, ezin dira falta idazle honen istorioetan, eta horien erabilera handia egiten du, inurrien aipamenak deigarriak izanik. Idazleak txikitasunaren goraiamena egiteko erabiltzen ditu, *Inurrien Hiztegia* (2013) lanean ikus daitekeen moduan. Gainera, animaliak pertsonifikatzeko ohitura dauka, baita jostailuak edota beste zenbait gauza ere. Sarritan agertzen den beste elementu bat itsasoa da; aipamen ugari egiten zaizkio.

Horrez gain, narratzailea eta protagonista pertsona bera da istorio gehienetan, eta narratarioari berari zuzentzen zaio, hari hitz egiten ariko balitzaio bezala; batzuetan, zuzenean, eta beste batzuetan, beste pertsonaia baten bitartez. *Amona, zure Iholdi-n* (2000), esaterako, Iholdik bere amonari idazten dionean, argi dago narratarioari hitz egiten ari zaiola. 1. pertsonaren erabilera nagusitzen da eta flash back-az asko baliatzen da idazlea, oroitzapenei eta iraganeko esperientziei bidea irekiz. Beraz, memoria eta horren garrantzia argi geratzen da. Horren harira, ia beti denbora-estruktura bera jarraitzen du; istorioa orainaldian hasten da, lehenaldira bueltatzen da istorioa kontatzeko, eta berriro orainaldira egiten du jauzi, askotan amaiera irekia utziz, hau da, istorioaren jarraipena irakurlearen eskuetan utziz.

Azkenik, samurtasuna darien istorioak dira, irakurlea hunkitu egiten dutenak, zeintzuetan lagunenganako eta familiarenganako maitasuna gailentzen den. Irakurlea horietan murgiltzea lortzen du idazleak, bai transmititzen diren emozio eta sentimenduengatik, baita askotan irakurlea bera istorioaren amaiera interpretatu eta imajinatu behar duena izateagatik ere.

Ondorioei amaiera emateko, Mariasun Landa gaur egungo emakumearen literatura estiloarekin (Ciplijauskaité, 1988 eta Garbí, 1997) nola identifikatzen den aipatu behar da. Zalantzarik gabe, puntu askotan bat datoz. Garrantzitsuenean, behintzat, bai; emakume/neska berria agertzen da, erabat kontzientea eta ikuspuntu femenino batetik jarduten duena. Landaren istorioetan hori argi ikusten da. Gainera, sormena funtsezko elementu bihurtzen da, inprobisazioari leku emanez eta detaile txikietan arreta jarritz. Bestetik, emakumearen gaur egungo literaturak marko eta arketipoetara bueltatu eta horiek transformatu egiten ditu; Landak ere, bere istorioetan, inposatutako markoarekin bukatzen duten emakumeak/neskak aurkezten dizkigu, estereotipoak erabat irauliz.

Gainera, irakurlearen partetik kolaborazioa eskatzen duten istorioak dira bai Landarenak baita gaur egungo emakumearen literaturarenak ere. Emozioak zuzenean transmititzen zaizkio irakurleari, eta lehen pertsona erabiltzeko ohitura dago transmititze horretan. Horrez gain, memorian gordeta dagoenari eta ametsei garrantzi handia ematen dien literatura da, eta Landaren lanetan ere argi ikus daiteke, haurtzarora eta iraganeko momentuetara bueltatzeko eta horietan enfasia jartzeko ohitura horretan hain zuzen ere. Horrez gain, indarrez beteta dagoen lengoaia erabiltzen du Landak, eta emakumearen literatura garaikidean bezala, emakume moduan hitz egiteko grina azaleratzen du, lengoaia horrekin, irakurleei sentiaraztea eta erreakzionatzea bilatuz. Halaber, emakumearen literaturan oso ohikoak dira zenbait irudi eta sinbolo, eta Landaren lanetan ere agertzen dira batzuk; hala nola, itsasoa, etxea, eraztuna eta inurriak. Azkenik, pertsonaien auto-ezagutzari lekua uzten zaio, auto-azterketaren, bakarrizketaren edota egitura dialogikoen bitartez, eta ironia, noski, ezinbesteko elementu bihurtzen da. Landak, gainera, horrez guztiaz gain, umorea ere sartzen du bere lanetan.

Bukatzeko, esan beharra dago, Mariasun Landaren lanak oso aberatsak direla, alde guztietatik aztertuta, eta horiek hezkuntza arloan hainbat gai lantzeko baliogarriak izan daitezkeela.

Iradokizunen bat ematearren, interesgarria izango litzateke emakume protagonistei buruz idazten duten beste idazle batzuen arteko konparaketa egitea. Ondo legoke, adibidez, Mariasun Landaren estiloa eta pertsonaiak, beste idazle gizon edo emakumeenekin konparatzea, betiere pertsonaia femeninoen inguruan idazten badute. Era honetara konparatu ahalko lirateke, esaterako, pertsonaia horiengan zein balore eta

ezaugarri azpimarratzen dituen bakoitzak, nolako lengoia erabiltzen duen, edota zein mezu bidali nahi duen pertsonaia horien bitartez. Horrela, gizon eta emakume idazleen artean ematen diren ezberdintasunak edota antzekotasunak aztertu ahalko lirateke, ematen badira, noski.

#### **4.1. Aplikazio didaktikoa**

Ondoren aurkezten den proposamen didaktikoa, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleei dago zuzenduta. Horretarako, Mariasun Landaren *Maitagarria eta desioa* (2012) liburua aukeratu da, eta bertan tratatzen diren hainbat gai lantzeko jarduerak proposatu dira (ikusi 1. Eranskina). Ataza horiek, noski, lan honetan landutako gaiaren inguruan planteatuta daude, baina batez ere, emakumea objektu moduan aztertzea bilatzen da, ikuspegi eta irakurketa ez sexista batetik. Horrez gain, ikasleek euren aurreiritziak birformulatzeko eta zenbait balore lantzeko ere balio dute.

Istorio hau, beraz, ikasleek hainbat helburu lortzeko erabil daiteke, horien artean:

- **Estereotipoak apurtu.** Neskak, protagonista ausartak eta azkarrak izan daitezke.
- **Autonomia landu.** Bakoitzak, berdina da neska zein mutila izan, era autonomo batean, bere arazoei aurre egiten ikasi behar du.
- **Adiskidetasuna landu.** Laguntasunaren eta elkarlanaren garrantziaz konturatu.
- **Familia eredu ezberdinak ezagutu.** Familietan gerta daitezkeen egoera ezberdinak eta aldaketak ulertu.
- **Sentimenduak ulertu eta horiek adierazteko beharra landu.** Guztiok, neska zein mutil, sentimenduak ditugu, baita horiek adierazteko beharra eta askatasuna ere.
- **Denboraren garrantziaz ohartu.** Gizakien denboraren hauskortasunaren garrantziaz konturatu.

Era berean, istorio honetan tratatzen diren zenbait gai landu daitezke jardueren bidez:

- **Neska eta emakumeen protagonismoa.** Ezbai eta Maitagarria dira pertsonaia nagusiak, protagonistak. Maitagarria pazientea eta zuhurra da; Ezbai, ausarta eta

azkarra. Azken honek arazoan aurrean konponbideak bilatzen daki, eta biek islatzen dituzte sentimenduak.

- **Neska ausartaren irudia; arazoak bere kabuz konpontzen dituena.** Ezbai uneoro inizatiba duen neska da. Ez dio beldurrik etorriko denari, eta horregatik ez du berehalako desioen beharrik. Konfiantza eta segurtasuna du beragan.

- **Euskal mitologia.** Maitagarriaren pertsonaia da istorioan zehar uneoro agertzen dena. Badago beste pertsonaia bat ere, sorgina, noizean behin oso azaletik aipatzen dena, baina hau ere, inplizituki, istorio osoan presente dago.

- **Laguntasuna.** Pertsonaia guztiek duten ezaugarria da eta hainbat momentutan islatzen da: maitagarriak Ezbairi bere arazoak konpontzeko prestutasunean, Tomasek herriko amonei bizitza errazteko ahaleaginean, Ezbaik herriko jendeari euren ziurtasun-gabeziak gainditzeko saiakeran, Tomas Afrikako kanpamentu bateko umeei bizitza alaitzeko pailazo lanean hasten denean, ...

- **Enpatia.** Bestea sentitzen ari dena ulertzeko gai dira istorio honetako pertsonaia gehienak. Horren adibide argia da Maitagarriak Ezbaireren erabakia ulertzea lortzen duenean.

- **Guraso bakarreko familia.** Ezbaik ez du bere aita ezagutu eta betidanik bere amak bakarrik hezi du.

## 5. ITURRI BIBLIOGRAFIKOAK

Barbancho, I. (2012). *Mariasun Landa Etxebeste*. Gipuzkoa: Euskomedia Fundazioa, 2014-11-25ean hartua, hemendik: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/84858>

Ciplijauskaité, B. (1988). *La novela femenina contemporánea (1970-1985)*. Barcelona: Anthropos Editorial.

Garbí, T. (1997). *Mujer y literatura*. Valencia: Ediciones Episteme S.L.

Landa, M. (1982). *Amets uhinak*. Donostia: Elkar.

Landa, M. (1983). *Elisabete lehoi domatzailea*. Donostia: Elkar.

- Landa, M. (1989). *Txan fantasma*. Donostia: Elkar.
- Landa, M. (2000). *Amona, zure Iholdi*. Donostia: Erein.
- Landa, M. (2012). *Maitagarria eta desioa*. Donostia: Elkarlanean, S.L.
- Lasarte, G. (d.g.). *Los personajes de Mariasun Landa y la construcción de identidades femeninas alternativas*. EHU/UPV, 2015-01-15ean hartua, hemendik: <http://www.aepv.net/miniwebs/congresoLiteraturaInfantil/comunica/C7%20LOS%20PERSONAJES.pdf>
- Magaña, L. (2014). *Cuestión de género: algunos aspectos clave del feminismo en la creación artística posmoderna*. Universidad de Costa Rica: Portal de Revistas Académicas, 2015-02-08an hartua, hemendik: <http://revistas.ucr.ac.cr/index.php/intercambio/article/view/16709/16212>
- Mariasun Landa* (2014). 2014-12-16an hartua, hemendik: <http://www.mariasunlanda.net/>
- Olaziregi, M. J. (2005). *LANDA, Mariasun*. Gipuzkoa: Portal Literatura Vasca, 2014-12-28an hartua, hemendik: <http://www.basqueliterature.com/Katalogoak/egileak/landa>
- Roig, M. (1984). *Mujer y literatura*. Madrid: Fundación Juan March, 2014-10-23an hartua, hemendik: <http://digital.march.es/ensayos/fedora/repository/ensayos:138/OBJ>
- Violi, P. (1991). *El infinito singular*. Madrid: Ediciones Cátedra, S.A., 2015-01-04an hartua, hemendik: [https://books.google.es/books/about/El\\_infinito\\_singular.html?id=6XaJ4azuh8YC&hl=es](https://books.google.es/books/about/El_infinito_singular.html?id=6XaJ4azuh8YC&hl=es)
- Zabala, E. (2012-11-27). 'Maitagarria eta desioa' izeneko liburua sortu du Mariasun Landak. Gipuzkoa: Donostiako Hedabideak, S.L., 2015-02-20an hartua, hemendik: <http://irutxulo.hitza.info/2012/11/27/%E2%80%98maitagarria-eta-desioa%E2%80%99-izeneko-liburua-sortu-du-mariasun-landak/>



# ERANSKINAK

## 1. ERANSKINA. GELAN BURUTZEKO JARDUERAK

### **IPUINAREN IZENBURUA: “Maitagarria eta desioa” (Landa, 2012)**

**Laburpena:** Ezbai izeneko neska da ipuin honetako protagonista. Honek, behin, bere ondora eroritako maitagarri bati lagundu zion; Maitagarriak, trukean, desio bat eskatzeko aukera eman zion. Neskatoak, hurrengo egunean galdera bera egitera itzultzeko eskatu zion, hori zen bere desioa. Egunero, Maitagarria galdera bera egitera etortzen zenean, Ezbaik gauza bera erantzuten zion. Horrela, egunero Maitagarriaren bisita jasotzen zuen. Eta horrela igaro ziren urteak, Ezbai emakumetu eta zahartu egin zen arte. Hil zorian zegoela, eta Ezbairekin hitz egin ostean, Maitagarria behingoz konturatu zen neskak benetan nahi zuena desiratzen jarraitzea zela, alegia, egunero ilusioa izaten jarraitzea zela bere desioa.

### **A. JARDUERA: Ezbai definitu, estereotipoak apurtu**

- Nolako neska da Ezbai? Zein ezaugarri ditu?

*Ausarta*

*Azkarra*

*Leloa*

*Argia*

*Beldurtia*

*Berekoia*

*Zalantzakorra*

*Atsegina*

*Pasiboa*

*Burugogorra*

*Ona*

*Sentimentala*

*Tristea*

*Apala*

*Iniziatibaduna*

- Zuri gustatzen al zaizu Ezbai? Konpartitzen al duzu ezaugarririk berarekin?

- Horrelakoak al dira zure inguruko neska-mutilak? Goiko ezaugarrietatik, zeintzuek definitzen dituzte?

**B. JARDUERA: Ezbai eta bere desioa**

Imajina zaitez Ezbairen egoera berdinean:

*“- Jakin ezazu zorionekoa zarela lagundu didazulako, daukazu desiorik handiena ematerik badudalako.*

*- Hauxe desio dut gehien: zu bihar berriro etortzea gauza bera galdetzera.”*

- Zer egingo zenuke Maitagarriaren eskaintzaren aurrean?
- Zergatik uste duzu Ezbaik desio hori eskatzen diola? Zer lortu nahi du?
- Ezbaik zuhur jokatu duela uste duzu, ala aukera ona galdu duela?
- Garaile atera al da Ezbai azkenean?
- Zer ikasbide dago horren atzean?

**D. JARDUERA: Ezbai, protagonista berezia**

Ezbaik sekretu bat duela dirudi, istorioan hainbat aldiz azaletik aipatzen dena: ez du itzalik.

- Zergatik dela uste duzu?
- Zergatik ez dio inori bere sekretua kontatzen?
- Eta zuk, nori kontatzen dizkiozu zure sekretuak?
- Zure ustez, nolakoak dira sorginak? Maitagarria sorgina al da?
- Ba al dago ezberdintasunik sorginen eta maitagarrien artean?

Ezbai, gainera, betidanik bizi izan da bere amarekin. Inork ez daki nor den bere aita.

- Zergatik izan daitekeela uste duzu?
- Ba al du horrek eraginik Ezbairengan? Edo ez?

Ezbairen moduko familia asko daude gaur egun, ama eta aita bakarrekoak, baita beste familia mota ugari ere.

- Zer deritzozu horri?
- Zenbat familia ezberdin eman daitezke? Zein familia mota gehiago ezagutzen dituzu? (aita seme-alabekin, bi ama seme-alabekin, ...)

**E. JARDUERA: *Maitagarria, laguna azkenean***

- Nolakoa da Maitagarria? Ikusi al duzu inoiz maitagarririk? Zergatik uste duzu horrela deitzen zaiola?

- Maitagarriak eta Ezbaik harreman berezia dute. Hasieran, Maitagarriari kosta egiten zaio Ezbai ulertzea, baina azkenean lortzen du. Zer dela eta?

- Eta zuri, gustatuko litzaizuke maitagarri bat izatea? Zergatik?

- Zein ondorio ateratzen duzu istorioko esaldi honetatik?

*“Maitagarri-segundo bat orduak izan daitezke guretzat, asteak txolarrearentzat, hilabeteak antxoarentzat eta urteak inurrientzat.”*

Idazleak gu zertaz konturatzea nahi duela uste duzu?